

LABetik Tubacexeko lan-gatazkan Ertzaintzak izaten ari duen neurrigabeko jokabidea salatzen dugu

Gaur, berriz ere, Ertzaintzak neurritz kanpoko jokabidea izan du Tubacexeko langileak egiten ari diren piketeetan eta protestetan.

Ez da Tubacexeko langileek Ertzaintzaren probokazioa eta erasoak jasan duten lehen aldia, ezta bigarren aldia ere. Tamalez, 43 greba egun hauetan hainbat ekintza probokatzailerik eta neurritz kanpokoak izan dira Ertzaintzako hainbat kideren eskutik, bai eta dispositibo osoen eskutik ere, gaurko kasuan bezala.

Aurrekoetan ikusi dugun bezala, eta aurretik salatu den bezala, Ertzaintzaren jokabidea zalantzarria baino gehiago izaten ari da. Komunikabide batzuei informazioa ematea galarazi zaie eta langileen ordezkari batzuen aurka egiten saiatu dira. Gainera, salatu nahi dugu Ertzaintzako zenbait kide jarrera "txuleskoak" eta agintekeriako jarrerak izaten ari direla langileen aurka, etengabe zirikatzen eta kikiltzen saiatzen baitira, "bokatzarekin" apuntatuz edo inolako arrazoiketarik gabe identifikatuz, besteak beste.

Amurrioko eta Laudioko Tubacex lantegietako 129 langile kalean utzi nahi dituen lan-gatazkan Ertzaintzak egin duen neurrigabeko jokabide berri honen ondoren, gertakari hori publikoki salatu nahi dugu, eta arduradunei eskatu nahi diegu neurriak har ditzatela gertakari horiek errepika ez daitezen.

Tubacexeko langileek dagokien errespetuarekin tratatzea merezi dute, beren lanpostuak eta beren familien eta eskualdearen etorkizuna defendatzen ari baitira, Tubacexeko enpresa-zuzendaritzaren dirugosearen aurrean.

Laudion, 2021eko martxoaren 25a

